

{ datorrena } **Itzea Urkizu Arsuaga**

Positibo

Balkoira irten naiz haize pixka bat hartze-
ra, eta azpian dugun zuhaitzari begira pa-
satu ditut minutu batzuk. Bi aste eskase-
an, biluzik egotetik hostoz eta kimuz
janztera pasatu da; edozeinek esango lu-
ke zainetatik sartu zaiola inauteria. Gogo-
ratu dut konfinamendu itxi-luzetik nola idatzi nion
“Koaderno” bat zuhaitz berari, artean hazten ari zen
nire sabelarekin alderatuz. Izan ere, pandemia bat
gorputzu behar genuela jakin genuenez geroztik,
erraztasun handiagoa dut gertakizun arruntak efeme-
ride bilakatzeko, eta hainbestetan errepikatu dugun
esaldia ahoskatu dut buruan: bi urte jada.

Errekortariarena eginez heldu naiz konfinamendu-
aren urteurren bezperetara, koronabirusaren bihurgu-
ne eta aldaera guztiei iskin egi-
nez, harrigarriki. Baina lehertu
ziren pandemian-ospatu-baina-
pandemia-osteko-izendatu-geni-
tuen inauteriak eta, aspaldiko
partez, nire gorputzari baimena
eman nion tentsio horretatik pix-
ka bat askatzeko: zer kristo, covi-
da harrapatu behar badut, izan
dadila Tolosako inauterietan.

Segituan sentitu nintzen aho-
bero samar, mozorroak garbitu
eta etxean bi marradun testak
azaltzen hasi zirenean. Orduan
eta, lauzpabost test negatiboren ondoren, joan den
Martxoaren 8an positibo eman nuenean; bai kapri-
txosoa birusa. Joder, ez kalera ateratzerik, ez oihi egi-
terik; etxean ni eta nire sua, amorrazio garretan.

Asanbladatik deitu genuen mobilizaziora ezin iza-
tea joan benetako arazo balitz bezala; han elkartu zi-
ren emakume guztien presentzian ordezkatuta ez ba-
nengo bezala. Esan, landu, egin eta lortu nahi dugun
guztia nire aletxorik gabe esan, landu, egin eta lortu-
ko ez balitz bezala. Hori gertatzen baita zure uniber-
tso konfinatu-efimeroa zu eta zure balkoi aldamene-
ko zuhaitzera mugatzen duzunean: dramak sortzen
dituzula dramarik ez dagoen tokitik.

Nire biografiako punturen batean topo egin nuen
feminismoarekin eta, horri –eta terapian lantzen ari
naizen beste zenbait konturi– esker, ia egunero jar-
tzen dut zalantzan neure burua. Zigortzen naizela,
alegia, tokatzen ez zaidanean amorratzeagatik. Une
batez kontuan ez izateagatik, nire zapalkuntza guztie-
kin ere, pribilegio-algodoitan bizi naizela munduko
beste hainbat emakumeren aldean.

Zer da ba, pribilegio bat ez bada, inauterien suziria-
rekin batera lehertzen hasi ziren Ukrainako bonben
albisteak zeharka jarraitzea, festaren aitzakian? Zer da
ba, pribilegio bat ez bada, proxeneta alemaniarrek Po-
loniako mugan emakume errefuxiatuak bahitu eta
haiek esplotatuz eta bortxatuz negozioa egingo dute-
la irakurri, eta gure bizitzarekin aurrera jarraitzeko

Tamalez, paperean idatzitako galdera
erretorikoetan ez da emakume horiek
guztiak askatzeko konponbiderik
kabitzen. Ukrainarren maletetan haien
bizitzak kabitzen ez diren bezala

barrenak izatea, nahiz eta emakume haiekin egunean
bost aldiz gogoratu?

Tamalez, paperean idatzitako galdera erretorikoe-
tan ez da emakume horiek guztiak askatzeko konpon-
biderik kabitzen. Ukrainarren maletetan haien bizi-
tzak kabitzen ez diren bezala, edo itotzen gaituen
bizimodu honi su emateko piztu dugun garra muge-
tako proxenetak erretzera iritsiko ez den bezala. Ta-
malez, gure balkoitik ez naiz zuhaitzari irten berri
zaizkion lore txikiak usaintzera iristen, ezta gure uni-
bertsotik munduko arazo guztiak konpontzera ere.
Kezkaren eta ezinegonaren testean positibo gara, eta
bada zerbait. •